

Plaza » Kultura



EreiNeskatilak saileko lehen zortzi aleen idazle eta ilustratzaileak elkartu ziren Donostian eginiko aurkezpenean, atzo. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Jabier Muguruza eta Iñaki Irazu izango dira gaur Bilbo Zaharra Forumean

Jean Mixel Bedaxagar, Anjel Valdes, Amaia Zubiria eta Felipe Juaristik ere egingo dituzte emanaldiak

Erredakzioa Bilbo

Bilbo Zaharra Forumak datozen asteetarako onduriko egitarauak literatura eta musika uztartuko ditu, ostera ere. Xabier Euzkitze kazetaria eta Joxan Goikoetxea musikaria izan ziren *Hitza eta musika* topaketei hasiera ematen lehenak, joan den astean. Eta hurrenak Jabier Muguruza eta Iñaki Irazu izango dira, gaur. Idazle gisa badu eskarmentua Muguruza, baina batez ere musikaren alorrean egin du bidea. Hala, Bilbo Zaharra Forumean saioan musikari helduko dio batik bat, eta Iñaki Irazuren poemak lagunduko ditu, hartarako aproposak diren doinuez eta kantuez.

Jean Mixel Bedaxagarrek eta Anjel Valdesek musikak bil ditzakeen askotariko hitz eta istorioen berri emango dute, hilaren 11n. Bedaxagarrek gutxi bezala eza gutzen ditu Añamendiko kondairak eta sinbologia. Eta Valdesek lotura estua izan du musika-rekin hainbat urtetan. Gazterik ekin zion perkusio tresnak jotzeari, eta M-ak taldearekin bost disko kaleratu zituen. Esan Ozenki diskoetxearen sortzaileetako bat izan zen, eta, gaur egun, Elkar diskoetxeako editorea da.

Amaia Zubiria eta Felipe Juaristiren txanda izango da hilaren 18an. Literaturak eta musikak berezko dituzten gaiez jardungo dute Bilbon, hala nola maitasunaz, galeraz, malenkoniaz eta herminaz, batzuetan poemak errezitatuz, besteetan abestiak kantatuz.

Atxaga eta 'Erlea'-ko taldea Bernardo Atxagak itxiko du *Hitza eta musika* topaketen egitaraua, abenduaren 2an. Euskaltzaindiak 2009ko urriaz geroztik kaleratzen duen *Erlea* aldizkariaren zuzendaria da Atxaga, eta argitalpen horren inguruan, idazle eta artista talde garrantzitsua bildu ohi du. Hirugarren zenbakia bihar aurkeztuko du Donostian, eta bertan jorraturiko gaiak eta lanak izango ditu hizpide idazleak.

Euskaltzaindiko Bilboko egoitzan izango dira saio guztiak, 19:00etan hasita. Eta, ohikoa denez, sarrera doakoa izango da.

Neskak protagonista

Gaztetxoentzako zortzi libururekin hasi dute EreiNeskatilak saila, neskatzek rol nagusia betetzen duten ipuinen sorta

Lehen aleetako istorioak idatzi eta ilustratu dituzten sortzaileak emakumezkoak dira

Ainhua Sarasola Donostia

Neskatilak protagonistaren rolan ageri diren zortzi istorio berri dituzte irakurgai 8 eta 10 urte bitarteko gaztetxoek. Zortzi aleko ipuin sortarekin eman dio hasiera Erein argitaletxeak EreiNeskatilak sailari. Askotariko egoera eta portaeretan jarri dituzte protagonistak liburuok ondu dituzten idazleek eta ilustratzaileek, emakumezkoak guztiak ere. Aurrera begira ale gehiago biltzeko zabalik dago saila.

Nerabezaroaren aurreko urteak bizi dituzte istorioetako protagonistek, emozio, beldur eta ziurtasun falta handiko garaia. «Halako igarobide bat dago garai horietan; nolabait oraindik babesa behar dute haur horiek, baina aldi berean irrikan daude mundu zabalari aurre egiteko eta gauzak ezagutzeko», Iñaki Aldekoa editorearen hitzetan. Adin tarte bereko gaztetxoentzat dira liburuak, neska zein mutikoentzat.

Neskatilak protagonista diren bilduma egitearen atzean «zer-

bait berria» egiteko nahia aipatu du Aldekoa. «Askotan, proiektuen atzean ez da egoten arrazoi izugarririk. Besterik gabe, egileak emakumeak izanik, pentsatu genuen polita izan zitekeela bakoitzak bere bizitzako pasadizo edo emozioen bat kontatzea». Egile bakoitzari «beren munduko zerbait» kontatzeko lana eman zuten Aldekoa, eta «desafioari oso ondo» erantzun diotela uste du.

Hala, askotariko gaiak landu dituzte egileek, eta «bizitzan adina bizipen eta portaera» agertzen dituzte ipuinek. Adin horretako gaztetxoaren arazo eta buruhausteak islatu ditu Ana Urkizak, asteburua baserri batean igarotzen duen ikaskide taldearen istorioan. Genero identitatearen gaia landu du, berriz, Alaitz Olaizolak, «handitan» Mikaela izan nahi duen Mikelen bizipenetatik.

Beldurra hartu du ardatz Arrate Egañak, armairuko munstroaren irudia baliatuta. «Garapena nire testuetan askotan agertzen den kontzeptua da. Ipuineko neskak topatzen du parada aurrera-

pauso batzuk emateko, baina zaila egiten zaio, hain zaila, helduok krisialdi deitzen diogunari berak munstroa deitzen dio». Munstroak ez, liburuak ditu armairu barruan Leire Bilbaok irudikatutako neskak. Armairuan irakurriz egiten dituen barne bidaien bidez, haren barne mundua islatuko du, mudantzako langileak haren txoko kuttuna eramateko iritsiko diren arte. Oso bestelako arazo bati aurre egin beharko dio Yolanda Arrietaren ipuineko neskak, eta Egañak bezala, garapenaren ideia lotuta ondu du lana.

↓ Liburuak

'Bidegorriko festa'. Ana Urkiza eta Aitziber Alonso.

'Gabe gabe'. Arrate Egaña eta Marimar Agirre.

'Armairu barruan ipuinak irakurtzen zituen neska'. Leire Bilbao eta Estibalitz Jalon.

'Nitaz ahaztu dira'. Yolanda Arrieta eta Eider Eibar.

'Ramoni Ramoni'. Aizpea Goenaga eta Iñatza Larrañaga.

'Mahatsak eta neskakilak ondu zireneko uda'. Enkarni Genua eta Karnele Cruz.

'Lapurrak dabilta azokan'.

Aitziber Etxeberría eta Concetta Probanza.

'Mikel eta Mikaela'. Alaitz Olaizola eta Idoia Beratarbide.

Ettxera iritsi eta inor ez dela ikusita, berarekin ahaztu direla pentsatuko du, eta hirian zehar bakoitzi ibiltzea erabakiko du. Ettxera itzulita konturatuko da esperientzia ongi etorri zaiola, pixkanaka bere kabuz ibiltzen ikasi beharko duelako. Dagoeneko neska txikia ez dela frogatu nahiko du Aitziber Etxeberríaren neskakilak ere.

Errealitatea oinarri

Sei biloba ditu Enkarni Genuak, eta haietatik bakarra da neska. Haren mundua eta bizipenak eza gutzen ditu, eta haiek izan ditu oinarri ipuina idazteko. «Askotan abenturak bizitzeko ez dugu fantasiaren munduan sartu behar; fantasiarako abentura asko ekartzen dizkigu bizitzak». Emakumeen arteko transmisioa ageri da Aizpea Goenagaren lanean. Txikitari amonari aho zabalik entzuten zizkion istorioak nahasiz idatzi du ipuineko maitasun istorioa.

Sortzaileak elkartzeko egindako saioetatik esker ona agertu du Goenagak. «Oso interesgarria eta emankorra izan daiteke, eta, gainera, behartu gaitu emakumeak leku batean jartzera eta ahalegin bat egitera haurrek emakumeek eginiko literatura eta ilustrazioak jaso ditzaten». Halaber, ilustratzaileen lana nabarmendu dute idazleek. «Ez dute besterik gabe liburua apaintzen, gauza asko kontatzen dituzte; bilduma begietatik sartuko zaie umeei».